

Ermuko gazteak “Festan Blai” ekimenenean murgilduko dira

Orain arte ez bezala, 12 eta 16 urte bitarteko gazteek eurei bereziki zuzendutako ekintza izango dute Santxau jaietan. “Festan Blai”k musika, *photocalla* eta sare sozialak uztartuko ditu, eta euskararen erabilera areagotzea izango du helburu, besteak beste.

Kultur Kabia elkarteak eta Antxitxiketan begirale taldeak antolatuko dute Ermuko lehen “Festan Blai” jaia, Udalaren babesarekin. Uztailaren 15ean, ostirala, gaueko 22:00etatik 01:00ak arte burutuko da, Martxoak 8 plazan. Markelin DJa musika jartzeaz ardura-

tuko da eta Antxitxiketane-ko begiraleek bi mostradore izango dituzte. “Gure begiraleek pegatinak banatuko dituzte parte hartu nahi dutenen artean. Pegatinarik abesti euskaldun baten letraren zati bat agertuko da eta beste zatia daraman gaztearekin elkartu behar-

ko dute saria irabazi nahi badute”, azaldu dute antolatzaileek. Gainera, *photocalla* ere egongo da, eta Instagramera argazkia kigoz gero, bertan ipi-



niko den pantailan ikusi ahal izango dira.

Kultur Kabiak sustatutako ekimen horren helburua da gazteengan euskararekiko motibazioa eta euskararen erabilera sustatzea, horretarako eremu naturala sortuz. Eta horretaz gain, gazteei herriko jaietan leku propioa emateko asmoa ere badu, giro euskaldun eta osasuntsuan jaiez gozatzeko aukera emanez. “Jaietan ez dago DBHko gazteei zuzendutako bestelako ekintzarik —diote Antxitxiketane-ko kideek—, eta garrantzitsua iruditzen zaigu horiek ere euren lekua izatea Ermuan euskaraz gozatu ahal izateko”.

Giro paregabea

Dagoeneko Donostian eta Irunen ospatu da “Festan Blai” jaia, eta bi lekuetan arrakasta handia izan du

(YouTuben herri horietako hainbat bideo ikus daitezke). “Giro paregabea sortzen dela ikusi genuenean ez genuen zalantzarik izan: ekimen horrek Ermuan arrakasta izango luke!”, diote Antxitxiketane-ko begiraleek. Beraz, aurrera egitea erabaki zuten.

Egunean bertan lau begirale egongo dira “Festan Blai” dinamizatzen, eta Kultur Kabiako kideak izango dituzte alboan muntaian eta dena batzeko orduan. Izan ere, begiraleak lanpetuta ibiliko dira uztailaren 15ean, egun horretan bukatzen baitira udalekuak. Antxitxiketane-ko arabera, gazteei zuzendutako ekimen horrek amaiera bikaina emango die aurtengo udalekuei.



uriarte asesores ✓

Aholkularitza fiskala
eta lege aholkularitza

Komentukoa 3 behea · Tel. 943 179 040 · Faxa 943 179 197
48260 · Ermua · Bizkaia


IZASKUN TXURRUKA



Goienkale 9 Bajo
48260 Ermua Bizkaia

94 317 66 90

peluqueriaizaskun@gmail.com
peluqueriaizaskun.wordpress.com

Quetzal

[arropa, bitxiak, opariak...]

Goienkale, 9 · 48260 ERMUA | 943170065
www.quetzalmoda.com

Zure publizitatea:

DROGETEN ITURRI
Aldizkarian

943 179350 / 688 632876
drogeten@gmail.com